

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko maiatzaren 15a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • Hiriburuko mugak ezagutzeko aukera igandean.

Mikel Landa • «Egurraren ezagutza eza kasik erabatekoa da».

Nafarroa Behereko ahaireak



Hamar urte baino gehiago isilik egon ondoren, Iruñeko Xut fanfareak Miguel Angel Sagasetak utzitako Nafarroa Behereko partiturak bildu ditu ekainean kaleratuko duen 'Zaharrak berri' lanean. Diskoak ezezagunak diren eta ahazteko arriskuan zeuden hainbat musika partitura berreskuratu ditu: Nafarroa Behereko ahairak.



Iruñea •

Mugetan barnako bigarren ibilaldia egingen da igandean

Arturo Kanpion euskaltegiak antolatu du, hiriburuko mugak ezagutarazteko

Arturo Kanpion euskaltegiak Iruñeko mugetan barnako ibilaldia antolatu du etzirako. Txangoa Lagunartean hasi eta bukatuko da. 8:00etan aterako dira, ibilbidea 2:30etan bukatzeko.



Iruñeko hainbat txoko ikusteko aukera izanen da etzi.

• ARTXIBOKOA

JOAN DEN URTEAN IRUÑEKO mugetan barneko ibilaldia-
ren arrakasta aintzat hartuz,
bigarrena antolatzeari ekin dio
aurten Arturo Kanpion euskalte-
giak. Antolatzaileek diotenez,
batek baino gehiagok galdetuko
du harriturik Iruñeko mugik
baden eta horri erantzuten saia-
tuko dira etzi. Azken urteetan
Nafarroako hiriburua asko luzatu
eta zabaldu bada ere, mugak
izan baditu eta toki askotan
mugarri ederrez markatuak.
Mugarri horiek, ordea, leku asko-
tan falta dira, hiria handitu ahala
porlanak eta asfaltoak lurperatu
edo ezabatu dituelako. Arturo
Kanpiongoen ustetan, «Iruñeko
ingurumariak ederrak dira, eta
beren erreka-txoko, muino eta
xenda zoragarriak dituzte. Leku
itsusi eta bortizki erasotuak ere
ez dira gutxi. Baina haiek guz-
tiek osatzen dute gure hiria, eta go-
zatu ahal izateko ezagutzea da

lehen urratsa». Beraz, gorputza
mugitu bidenabar Iruñeko txoko-
ak eta historiaren puska bat eza-
gutzeko aukera du igandean
txango egitera hurbiltzen den
parthartzaileak.

**Irteera eta helmuga
Lagunartean**

Joan den urtean bezala, goizeko
8:00etan hasiko da. Txangola-
riak ordu horretan aterako dira
Burlatako bide zaharretan dagoen
Lagunartea elkartetik. Ezkaba,
Arantzadi eta Miluzetik barna
iragan eta gero, ibiltariekin egonal-

dia egingen dute Barañaingo
mugan. Indarrak berreskuratzeko
hamaiketako mokadua egin
eta atsedena hartu ondoren, ibi-
laldiak jarraituko du. Bideari
Azellatik iraganez ekinen zaio.
Sario eta Lezkairutik iragan oste-
an, ateratako tokira itzuliko dira
parthartzaileak bueltan arra-
tsaldeko 2:30etan. Antolatzaileek
azpimarratu dutenez, mugetan
barnako bigarren ibilaldiak
Ezkaba eta Zizur aldeko mugak
erakutsi nahi ditu, eta, bide
batez, Arga ibaian barna lotu.
Udalak berriki Argako ibiako

hertzak eta txokoak moldatzeko
plana onartu duela aintzat har-
tuz, aukera paregabea da gertu
dauden baina ezezagunak diren
paraje asko ezagutzeko. Ibilaldia
bukatu eta ordu eta erdira baz-
karia izanen da denontzat Mag-
dalenako makaldian. Parte hartu
nahi duenak edota informazio
gehiago lortu 22-22-46 telefono-
ra deitu behar du. Bazkariak
1.100 pezeta balio du eta txarte-
lak Arturo Kanpion Euskaltegian
lor daitezke.

→ Irene Arrizurieta

Bera
•
**Babes
ofizialeko**
**56 etxebizitza
eraikiko dira
Agerra auzoan**

IRAGAN ORTZIRALEAN AURKEZTU
zituena Berako Udalak dato-
zen asteetan egiten hasiko
diren babes ofizialeko etxe-
ak. Agerra auzoan 56 etxe-
bizitza egingen dituzte: Pro-
cecsa enpresak sustatuko
ditu, eta Coar-ek eraikiko
ditu. Gazteek, etxebizitza
propiorik ez dutenek, eta
lehenbiziko etxebizitzaren
bila dabilzanek izanen dute
lehenbikusuna etxebizitzak
erosteko orduan.

Hiru motatako pisuak
eginen dira: 90 metro koadro-
koak (3 logela, egongela,
2 bainugela, sukaldea eta
terraza), 75 metro koadro-
koak (2 logela, egongela, 2
bainugela, sukaldea eta
terraza) eta 55 metro koadro-
koak, (2 logela, egongela,
bainugela, sukaldea eta
terraza).

Etxebizitza guztiek gara-
jea, trastelekua eta berogailu
eta urarentzako galdara
izanen dute, eta salneurria
etxearen tamainaren arabe-
rakoa izanen da; horrela, 90
metro koadroko etxebizitzak
14 milioi pezeta balioko du
(garajea eta trastelekua bar-
ne), 75 metrokoak 12 milioi,
eta 55 metrokoak 9,5 milioi.
Errentaren arabera, hala-
ber, dirulaguntza batzuk
jaso ahal izanen dira, gehie-
nez ere milioi batekoa pisu-
rik handiengan. Etxebizi-
tzak erosi nahi dituztenek
Berako udaletxean eman
beharko dute izena maiatza-
ren 25a baino lehen, horre-
tarako prestatuturiko inpr-
makia betez.

→ Jon Abril

bidean begi

MAITE URKIA



Lanera abiatu zen Ane, oinez eta aterkia
zabaldua, eguzki zabalaren ordez euria
etsi ezinean ari zuen maiatzaren hasiera-
ko egun batean. Hiria alde berriko libu-
rudenda batean lan egiten zuen. Goiz hartan, apa-
letako aldizkariak antolatzen ari zela, udan lirain
egoteko kontseiluz beterikoei erreparatu zien, eta
berak ere premiaren bat bazuela uste zuenez, goi-
zoko lanaldia bukatutakoan haietako aldizkari bat
boltsuan sartuta joan zen etxera.

Ohi bezala bere gisa bazkaldu -senarrak hirurak
arte lan egiten zuen eta mutikoa eskolan zegoen-
eta egongelako sofan jarri zen erdi etzanda aldizka-
ria hartuta. Sandalia, erloju, krema eta abarren pro-
paganda saldoa, hiri handietako jantzi denda doto-
reak, Coppola zinegilearekin egindako elkarrizketa,

Simple-Chic

bitxiak, estetika zentro izendunak, elikadura, Sara-
mago idazleak Lisboaren gainean egin gogoetak
eta gehiago biltzen zen orri sorta mardul hartan,
baina laurogeita seigarren orrialdean ttaka egin
zion kuriositateak. Miami luxozko hotel bat ageri
zen; luxozkoa baina simple-chicerakoa, alegia, hiri
izugarri batean buruari nahiz gorputzari igurtziak
egiteko «oasia»; bainu erromatarren gisakoak ame-
tsetan egoteko eta hondartza pribatuko hanean
afaltzeko aukera. Eta hori guztia, beti ere, Estatu
Batuetako diru eta sonadunak zenizpiritu berrian
murgiltzeko, naturismo eta ekologiaz blai.

«Bueno, bueno -esan zuen bere baitan- hemen
behintzat Aritzakungo bordaren batean egun ba-
tzuk pasatuz gero ez dago dantzan egingo duen ki-
riorik, baina, jakina, hain handiak dira hiri horiek...

Hurrengo orrialdean sinpletasunaren izpirituare-
kin jarraitzen zuten; altzari gutxiko gelak, gauza ba-
koitza bere tokian egotea, behar dena bakarrik
erostea...

la ohartu gabe burua altxatu, bere ingurura begi-
ratu eta pentsatu zuen zein erraz lerratzen diren za-
pata, jertse edo jostailuak beren xokoetatik. Gero,
bere amaren etxeaz oroiturik, txukuntasunaren pla-
zerrak kilika egin zion bamean.

Tentazioari eutsi ezinik baina hala ere pittin bat
kostata, aldizkaria utzi eta logelarantz abiatu zen
barruko erroparen kaxoiko nahas-mahasari ukitu
bat emateko asmoz, nahiz eta tupustean azalduta-
ko beste asmo batzuren antzera hura ere bidean
geratu zitzaion, senarra atea irekitzen ari zela aditu
baitzuen orduantxe.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Etika falta

Niretzat balizko negoziazio batean amore ematea nahiko erraza izango litzateke. Ez dut eskeintzeko deus ere ez. Ez gordetako amosalik ez eta Konstituzioa aldatzeko inongo ahalmenik. Ni *punto-final* horietako lege baten aurrean amore emateko prest nago eta ez dut besterik eskeintzeko. Ikusten duzuenek jokatu politikoan hutsaren hurrengoa naiz ni. Galindo eta Dorado libre aterako zirela onartzen dut eta gaur bertan torturatzaile batek atxilotutako gazte bat hilko balu hori ere errugabe bezala bizitzeko aukera izango zuela ametitu eta oraintxe sinatuko nuke. Etika falta esango dute batzuk. Nere ustez ez da hori: kontua da pake justurik ez dagoela. Pake guztiak bidegabeak direla, eta batez ere, pake madarikatu hori heltzeko hori, besterik ez, ez dudala eskaintzeko. Inor hiltzen ez dudanez ezin dezaket treguarik egin. Ministroa ez naizenez ezin esan «akabo sarekada eroak, akabo legearen salbuespen egoerak». Transizio berria egitearen aldekoa naiz, beraz. Blanco hil zuenak. Lasa eta Zabala hil arte torturatu zituztenak. Denak errugabe eta kalean. Transizioa dela-eta behin Corcuera Ministroa irratian elkarrizketatzen ari zirela, entzule batek deitu eta galdetu zion: «Frankismoaren garaian ni torturatu ninduen gaur egun Goardia Zibileko Komandantea da, nola izan liteke?». Corcuera erantzuna oraindik dut gogoan: «Transizioa denok elkarrekin egitea hitzartu genuelako, okinek eta Goardia Zibilek, denak batera». Bale. Hala bedi. Tristetu egiten naute horrelako kontuak bainan gauza bat gehiago gehituko dut: nik ez nuke zuzenean, zuzenean diot (zeharka asko), deus ere irabaziko. Beraien Aberriak maite dituztenek, al-diz, askatasuna, lasaitasuna, mehatxurik gabe bizitzea, aberrien aldeko lana modu erosogoa egitea... dena daukate irabazteko. Interes haundiagoak dituztenek eskaini dezatela, behingoz, nik ez dudana hori guztia. Ni ez bezala, hain etikoa badira. Eta, mesedez, gerora ez daitezela tronpatu: okinek ez dute *punto-final* bezalako legedirik behar, ez dute etekin pertsonalik ateratzen, eta sinatzen badute, segurasko, besteengana begirune txalogarri baten-gatik da.

Lizarra

Lizarrako rock taldeen kontzertuak gaur eta bihar

GAUR ILUNTZEAN, 22:00ETAN aurrera Lizarraldeko rock taldeen musika kontzertuak egiten dira Los Llanos zelaia La Ormiga tabernan. Ekitaldia Lizarrako Udalaren Gazteria Batzordeak antolatzen dituen Lizarra Gaztea izaneko egitarauaren barruan kokatzen dira. Orotara sei taldek parte hartuko dute emanaldietan. Hiru gaur taularatuko dira eta gainontzeko hirurak bihar. Gaurkoan kantari ariko dira Thanatos, Nahikoa eta ES.3 taldeak. Lehenengo taldea Lizarra eta Anzineko taldeek osatzen dute, bigarrena Muniainekoe eta hirugarrena Lizarrakoe. Larunbateko kontzertuan aldiz, honako taldeok hartuko dute parte: Hi aituzak, Peta Z eta Fluor 5. Taldeon jatorriari dagokionez, erran beharra dago, lehenengoa eta hirugarrena Lizarrakoak direla eta, aldiz, Peta Z taldeko kideak Andosillakoak dira guztiak. Musika emanaldiaren helburua Lizarraldean dauden hainbat rock talderen nondik-norakoak ezagutzera ematea da. Zentzu horretan, partehartuko duten talde batzuk aurreneko aldiz igoko dira oholtzara kantatzera. Gaur eta bihar emanaldiek La Ormigak eskainiko dituen lehen emanaldiak izanen dira. Neguan itxita egon eta gero, orain irekiko dituzte ateak. Uda osoan zabalik egonen da eta beste hainbat ekitaldi ikusteko parada izanen dute lizarrarrek.

→ Kristina Berasain

• **Altsasu** •



● MIKEL SAIZ

Sakanako aerobic maratoia

Bihar egingen da Altsasuko kiroldegian Sakanako Lehenengo Aerobic Herri Maratoia. Gero eta aerobic-zale gehiago dagoela ohartuta, Altsasuko Udal Patronatuak antolatu du hiru ordu inguru iraungo duen lehenengo aerobic maratoia. Antolatzaileek Irurtzun, Altsasu, Olazti eta Arbizuko kiroldegian aerobica egiten duten zaleak espero dituzte. Maratoia Sakanako hiru aerobic irakaslek zuzenduko dute. Irakasle bakoitzak ordu erdiko koreografiak egingen ditu eszenatoki gainean. Maratoia luzapen ariketekin bukatuko da. Sakanan duela hiru urte hasi ziren lehenengo aerobic ikastaroak, eta egun zale asko biltzen ditu. Bihar 18:00etan elkarrekin ariko dira lehenengo aldiz.

Iruñerria

Nafarroako bost eskualdetako aldizkariak Nafarpress elkarteak sortu dute

TTIPI-TTAPA, MAILOPE, GUAIXE, Pulunpe eta Ze berri? Nafarroako bost eskualdetako herri aldizkariak Nafarpress elkarteak sortu berri dute elkarrekin dituzten helburuak hobekiago gauzatu

ahal izateko. Ekimenaren bultzatzaileek adierazi dutenez, Nafarpressek oraingoz hiru helburu ditu. Lehenengoa litzateke Nafarroako Gobernuaren aurrean interlokutore lana egingen duen taldea izatea. Diputazioko buruei dituzten gabezia eta beharren berri eman nahi die, eta, era berean, presio taldea izan nahi dute laguntza ofizialak izoztuak daudelako. Bigarrenik, aldizkarien arteko koordinazioa landu nahi dute. Ildo honetan, batez ere, langileen prestakuntza eta produktuaren hobekuntza bermatu nahi dute. Azken helburu nagusia publikitate alorra lantzea du.

Jakina denez, Hegoaldeko aldizkariak biltzen dituen Topagunea elkarteak eratua da lehe-

nagotik, eta *Ttipi-ttapa* eta *Guaixe* bertako partaide ere badira. Dena den, Nafarpresseko bultzatzaileek batak ez duela besteraren lana ordezkatzen. «Bi administrazio izateak dinamika ezberdinak sortarazten ditu. Nafarroako aldizkariak egin auznarketaren ondorioz, talde propio bat eratzea komeni zitzaigula erabaki genuen», azpimarratu du Joxe Manuel Irigoien *Ttipi-ttapa* aldizkariako erredaktore buruak.

Bestalde, aurrerantzean, laguntza publikoak izoztuta daudela aintzat hartuz, autofinantziaketarako bideak ere landu behar direla uste dute elkarrekoek.

→ Uxue Zabaleta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Bizitza aulki gurgildun batean

Ttipi-ttapa hamabostekariak, eritasun edo istripu baten ondorioz aulki gurgildun bati lotuta bizi direnen errealitatea ezagutu nahi izan du azken zenbakiko erreportaiaren bidez. «Aulki gurgildun bati lotua egon beharra ez da batera egoera xamurra inorentzat. Arazo honi, eguneroko bizimodu normala egiteko topatzen dituzten zailtasunak gehitu behar zazkio: eskailerak, ate estuak, telefono kabina altuak, lur azpiko aparkalekuak, espaloiak, koxkak... Oinez ibiltzeko aukera dugunok ohartu ere ez gara egiten detaile ttiki hauetaz, baina aulkian mugitu behar dute-

mentzat gaindiezinezko oztopo bihurtzen dira».

Ttipi-ttapa-k Julen Lekuona beratarren testigantza jaso du. Auto istripu baten ondorioz medulan lesio bat izan zuen Lekuonak; zazpi hilabete Toledoko ospitalean igaro zuen eta geroztik aulkiarekin bizitzera ohitu behar izan du. Etxean eta herrian aurkitzen dituen oztopoei buruz mintzatu da beratarra aldizkarian: «Bigarren pisu batean bizi naiz eta garajetik zuzenean igogailua jarri genuen. Autoari ere zenbait moldaketa egin genizkion. Bera aulkian ibiltzeko herri zaila da. % 8ko maldak baino handiagokoak ezin dira

igi eta Bera ez da zelaia. Hor dago Herriko Etxea, eliza, ostatuak, dendak, karriken egoera, zuloak, espaloiak... Frantzia eta Europa, orokorrean, arazo hauek lehenago ikusi dituzte eta askoz aurreratuago daude. Ibar-dingo bentak horretara egokitu behar izan dituzte», dio Julen Lekuonak.

Pakinko Igarzabal lesakarraren hitzak ere jaso ditu **Ttipi-ttapa**-k; bere ustez, erakundeek gehiago egin beharko lukete: «Lesakan bertan badira adibide mingarriak: futbol zelaia, joan den urtean estreinatua. Nire betiko afizioa izan da igandetean Beti Gazte ikustea eta orain ezin dut».



Luzer isilik egon eta gero, Xut fanfareak Sagasetak utzitako partiturak berreskuratu ditu

Hamar urte baino gehiago isilik egon ondoren, Xut fanfarea lanean da berriro. Taldeak Miguel Angel Sagasetak utzitako Nafarroa Behereko partiturak bildu ditu ekainean kaleratuko duen Zaharrak berri lanean. Diskoak ezezagunak diren eta ahazteko arriskuan zeuden hainbat musika partitura berreskuratu ditu.

N AFRARROA GARAIAZ ZEN BEHEREAN OSO EZAGU-na izan zen Xut fanfarea elkartu da berriro. 80ko hamarkadaren erdialdera jotzeari utzi zion taldeak. Dena den, aitzaki ezin hobeak aurkitu dute Xutekoek itzultzeko: Zaharrak berri bigarren diska kaleratzea. Eskuartearen dute erronka ez da makala. Lanak Miguel Angel Sagasetak apaizak 1978an argitratu zuen Luzaideko dantzak liburuan biltzen ez diren Nafarroa Behereko doinuak jasotzeko. Luzaiden apaiz egon zenean Sagasetak hainbat material bildu zuen eta gehiago ikertzen jarraitzeko asmorik ez eta Xut taldekoel utzi zizkien partiturak. Lana bi zatitan banatzen da eta instrumentu guztiak armonizatuak dauden piezak biltzen ditu: batetik, Besta Berri festaren musika (Iparraldean Corpus Eguna eta haren inguruko ospakizunak); eta, bestetik; kontraiantzak, polkak, ahaiarak eta martxak ageri dira lanean. Zaharrak berri Sagasetak utzitako berro-

gei piezen inguruan urte bat baino gehiago ikertzen ibili ondok suertatutako lana da. Koldo Azkona Izugarri taldeko kide izandakoa eta Xut berriak aurki plazaratuko duen lanaren zuzendariak dioenez, Sagasetak utzitako lana berri elkartzeko aitzakia eta lanean hasteko abiapuntua izan da. Dena den, argi utzi du lana karrikatuzko bildu direla eta ez Xut berripizteko. «Interesgarria zela eta gaitzeko arriskua zegoela ikusirik bildu gara», dio.

Herri tradizioa gordez

1981ean Xut taldeko Roberto Lazaro kideari Nafarroa Behereko ahaiarak jasotzen zituzten berrogei partitura baino gehiago eman zizkion Leitzañ Miguel Angel Sagasetak apaizak eta folkloristak. «Sagasetak berri Luzaideko dantzak lanean bildu ez zituen partiturak berreskuratu nahi izan ditugu. Gure ideia da, behin lana merkantuan egonik beste talde batzuek eman dezatela

ezagutzera», azaldu du Azkonak. «Sagasetak lan handia egin zuen. Luzaiden ibili zen apaiz eta ongi dokumentatutako lana egin zuen. Berrogeiren bat eman zizkigun eta guretzat ezezagunenak zirenak aukeratu ditugu, beti ere, musika aldetik kontrastatuz ere kalitatea ematen zutenak jasoz. Udaberriarekin batera egiten den Besta berriko ospakizunaren musika: kaskarot dantzak, eta elizaren barnean benedicanus eta magnificent jasotzen dira eta diskaren barruan pisu gehien izateaz gain, osotasun bat osatzen dute. Nafarroa Behereko Heleta eta Iholdi herrietan oso errotua dagoen tradizioa da. Dantza, musika eta tradizioa uztartzen dira Besta berri eta oso modan egon ziren joan den mendearen erdialdean, nahiz eta egun herri batzuetan desagertu diren. Diskaren bigarren puska Lapurdi, Nafarroa Behera eta Xuberoan hain maiz entzuten eta dantzatzeko diren: polken, martxen, jautzien eta kontraiantzen doinuek osatzen dute.

Partiturak Sagasetan utzi bazizkien ere, hogeeta hiru piezak osatzen duten Zaharrak berri lanaren doinuaren jatorria eta eritmoa jakiteko hainbat ate jo behar izan dituzte Iparraldean. Partiturak irakurri eta gero joan den urteko irailaren hasi ziren bete-betean piezen armonizazioa egiten. Baina,

Xut
Kidea
En
MAIZ

Musical score for 'Benamus' by Bezenafarro. It includes a title, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The score is written for a fanfare band with parts for tuba, trumpet, trombone, saxophone, and accordion. The title 'Benamus' is written in a stylized font.

Besta berri ospakizuneko Benamus doinuaren partitura.

‘Zaharrak berri’: Nafarroa Behereko musika berreskuratuz

lan handiena ikerketa izanda. «Iparraldean zein diren ezezagunak eta zeintzuk ez alderatu behar izan dugu. Zein abiaduran dantzatzeko ziren gara batean eta orain».

Sagasetaren lana Iholdi eta Heleta herrietan jasotako doinuak abiatzen zela ikusirik, Nafarroa Behereko hainbat iturritara jo behar izan dute piezen berri jakiteko. Besteak beste, Itsasuko Xabier Itxainak Beste Berriri buruzko datuak eman dizkie. Uharterko Mikel Aurnagak Nafarroa Behereko ahaiarak nola interpretatu esan die eta herrialde horretako ekitaldi eta festa guztietan musika jartzen duen Adartza taldeak zuten dokumentazioaren musika guztia ikuskatu du. Bestalde, Marcel Etchandy aita benediktiarrak Sagasetak emandako berrogeita hiru piezetatik zein ospakizunetan eta non kokatzen diren jakiteko aukera izan du. «Hala ere, kontaktuok mintzatu eta gero duten materialaren %40 ezezaguna izaten jarraitzen du», dio Serafin Zalba Xuteko kideak eta ikerketan aritu dena. «Dena den, horrek ez du esan naht musika hori interpretatzen hasten garenean entzuten duten Iparraldeko zaharrei eza-gun eginen ez zaie», gaineratu du.

Lanak gordeak zeuden pieza ezezagun asko ezagutzera emateaz gain, Xut taldeak Nafarroa Beherearekin izan duen harreman estuaren isla izan nahi du. «Gure lehen kontratuak Ortzaize eta Baigorriko jendearekin egin genituen. Gure emandien %30-40 inguru Baxenafarroan egin genituen. Hango musika oso erakargarria izateaz gain, ongi egokitzen delako fanfara batek egiten duen musikari», dio Zalbak. Beraz, badira oso

herri fidelak eta diskarekin horiek eskerrak eman nahi izan zaie. Bereizki, Beñat Irigoien Galtzetaburu Gabadiko akordeoi jolea omendu nahi izan da. Baxe Nafarroako musikarien aitzindaria, akordeoia jotzen fina eta primerakoa zen, oso estimatua. «Jauziak jotzen oso ona zen. Jotzeaz gain urratsak kantatu ere egiten zituen. Lehenengo martza eskaini diogu» azpimarratu du Azkonak.

Ekainerako karrikan

Zaharrak berri diskaren piezak apirilaren bukaeran grabatzen hasi ziren Xut berriaren hamahiru kideak. Roberto Lazaro, Iñako Osinaga, Josu Sarasate eta Serafin Zalba Xut taldekoak izandako lau kideei gehitu zaizkie Izugarri eta Paz de Ziganda fanfareko partaideak, orkestrak eta bandak eta musika laukote baten kolaborazioa. Iruñeko Arion estudioetan

f
a
n
f
a
r
r
e

X
U
T



Ayuntamiento.

Xut taldeak atera zuen lehen lanaren azala.

plikatua zen. Hamahiru instrumentu batera ongi interpretatuak eskaintzea zaila da. Hori dela eta, instrumentuak zatika sartu dituzte eta heldu den astean egindako azken grabazioan falta zaizkien bibolina, txirula, txanbela eta nahasketak egiten dituzte.

«Kalean jotzen arituak ezberdina izan da. Hotzagoa da. Azken batean dantzarien aurrean jotzekoak dira eta interpretatzeko gora-beherak egin behar dira zuzenean eta guztiok batera. Baina, era berean, lana badu kalitatezko produktua ateratzeko ahalegina handia delako», dio Azkonak.

Behin lana grabatuta eta oraindik data zehaztu gabe badute ere, ekainaren bukaera aurkeztu nahi lukete. Lanaren helburu nagusia Sagasetak utzitako doinuak ezagutaraztea dela aintzat hartuz, kaleratuko dituzten 1.500 disko kompaktoko eta 500 kasetekin batera euren armonizatuak partiturak biltzen dituen liburua argitaratu nahi lukete. «Lana dantza taldeetan eta folklore munduan aritzen direnek zabaltea nahi genuke. Liburuxka ere horretarako da. Partitura guztiak bildu dira erabiltzaileen lana eratzeko eta laguntzeko», azaldu du Azkonak.

Etorikizunari dagokionez, ez dute gehiago mintzatu nahi. Jakin badakite diska aurkezteko ekitaldiaren batzuk egin beharko dituztela. «Momentuz aurkezpene dugu buruan, eta ondortik etorriko diren halabeharrezko emandak aurreratuak». Noizehan behin jotzeko elkartzeko diren arren, bestelako musika konpremezuak dituzten hamahiru kide batzea oso zaila dela esanaz bukatu dute. Batera jotzeko asmo handirik ez badute ere, hirugarren diska bat ateratzeko materiala badagoela aurreratu dute. «Badira lanak bilduak Besta berri buruz eta aurki kaleratzeko asmoarekin». Denā den, ez dute gehiago aurreratu nahi izan.

→ Irene Arrizurieta

Aitzindari izandakoen bigarren lana

Xut fanfarea Iruñeko Udaletzeko dantza taldearen arrimoan sortu zen 1977an. Handik bi urtera bere lehen diska kaleratu zuen Xoxoa disketxearekin. Iruñeko Udaletzeko turuta atabaleraren portada zeraman lanak arrakasta handia izan zuen 80ko hamarkadan eta txaranga, banda eta fanfare askoren errepertorioa izan zen. 15.000 kopia banatu zirela jakitea besterik ez dago. Xut taldearen espa-

rrua kalea zen. 1982an desagertu zen arte Euskal Herriko plaza eta kaleetan hainbat emandak egin zituzten. Nekatuak eta gogorik gabe ari zirela ikusirik, taldea desegitea erabaki zuten. Hala ere, haiek utzitako arrastoa ez zen galdu, eta ondoren sortu diren fanfare askok eredu izan dute. «Ondoren sortu ziren hainbat fanfare Xuten oinarriak hartu zituzten. Sekulako eragina izan zuen. Xutek

trinbe berezi bat atera zuen, txanbela sartu zuen lehenbiziko aldi instrumentu bezala fanfare batean. Hori guztiagatik izan da oinarri gero etorri diren fanfarentzako», azpimarratu du Izugarri taldea sortu zuen Koldo Azkonak. Beste fanfare batzuen sorrera ez ezik, Xutek plazaratutako kanta eta doinu asko herri tradizioan utzartu dira denboraren poderioz. Lesaka bat kasu.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Karta jokoen gaineko literatura

Denborapasetan hain arrunta eta usea den karta jokoenak ere literaturaren arreta bereganatu du; geurean, bestalde, izen handiak ere badira jokoei gaineko idazkietan agertzen zaizkigun sinadurak.



HEGOALDEAN EGINIKO EUSKAL literatura XVIII. mendean hasi zela esan liteke, Larramendi andoindarraren aitagoiagoren gerizpean. Gutxi izan zen euskaraz jesuita hark utzi ziguna, baina ezin uka euskararekiko jarrera berri baikorrako erraztu zituela. Bestalde ere, Gipuzkoako deskribapen berria eskeini zigan, aurretik Gaztela aldean eginikoekin guztiz bat ez zetorrena. Horrela bada, 1758. urte inguruan tajutu zuen *Corografía de Guipúzcoa* lan ederra, eta nahiz Larramendi bizi zela ez zen argitaratu ordena barruko zentsurak egoki ez zeritzolako, bertan irakurgai ditugun askok ez du gaurkotatzen galdu. Deskribapen zehatz honetan ez zitzaion ezertxo ere atzendu jesuitari, eta horrela, 37. kapitulu probintziako ohitura, denborapasa eta dantzei eskeini zien. Hauxe dugu, mus karta-jokoari buruz eginiko lehenbiziko deskribapenetakoa: «El juego tan antiguo en el país como los naipes es el juego de mus, y son el grande, el chiquito, parejas y juego (...) Es un juego muy divertido por lo que se engañan, por lo que se habla, y por las muecas y señas que se hacen...».

Larramendiren lana 1882. ean eman zuen argitara Fidel Fita josulagunak Bartzelonan. Ordurako, bat baino gehiago ziren mus jokoa erakusten zuten deskribapenak. Horietako bat, Juan Ortiz Zaratekoak egin zuen, *Reglas fijas que conciernen usar en el juego llamado mus*, Iruñean 1804. ean agertu zena. Lan honen eliz aztertzailea Pedro Bidaurre izan zen, Iruñeko eliz nagusiko soxtantrea zena, eta bere oneritzia 1804.eko abuztuaren 18an borobildu zuena. Harrigarria iduri arren, ez ziren euskal eliz-gizonak sobera tematu karta jokoei aitzia, eta horrela, aski eredu-garria zaiguke Florentino Andueza Senosiainen ekarpena. Iruindar honek, *El juego de monte y sus 30 trampas o secretos* izenburuko idazkia agertarazi zuen Iru-

ñeko San Nikolas 17an Roman Belandiak zuen etxetik 1898. ean. Bere seme-alabei eskeini zien 75 orrialdeko idazki hau ->«A vosotros hijos míos: tener este libro siempre presente y apartaros de este fatal vicio»-arras helburu zehatza erdieste-ko saioa dukegu: monte zeritzan jokoa useak ziren triki-mailu guztiak ezagututa, irakurleak ez zezala joka, eta halaxe egin ezean, atzipeturik gerta ez zedin bederen. Egileak, lanaren hitzaurrean, ez idazletzat ematen zuen bere burua, «carezco de musa», baina, handiustekeria doi bat erakutsirik, arrakerorik hautenek erabilitako iruzurrik zailenen jabe ere bazela aitorzen zigan, betiere bizitza oneko pertsonen zerbitzurako. Jukutria hauen antzemateko, Europako zein Ameriketako izen goreneko joka-leku eta besta-jiretan izana zen, askotan azpikokoa sartzen ari zitzaizkiola jakinda arrakeroei egiten uzten, baita babesik bako beste pertsonak bere sos guztiak galtzen ari zirela ikusten zuenean haien alde ezer egin gabe. Asko dira bere liburuan azaldu zitakigun marroak, harrigarrienen artean poxpolo kutxatilen barruan jarritako mirail txikiarena edota erloju-sistemaren bitartez karten markaketarena. Jokoa berean ikasitako hauen eraginkortasuna aldarrikatu zuen, bere bizitza osoan eramaniko jokaeraren zurigarri apika, beti ere gaiari buruz tajutu gaitzontzeko beste ha-maika liburuaren parean, non, zioenez, ezer probetxugarriarik ez zegokeen.

Anduezak aipatu bibliografía honen barruan, Jose Yanguas Mirandak ondutako kaier apain bat sarrara-


zi beharko genuke, hau da, *Análisis apologético-crítico del juego llamado monte*, zinez kausigaitza den lana. Lan honekin, Yanguasen asmoa Anduezarekin batera zihoakeen, alabaina, bigarren honek jokoa erakutsirik, erdieste-ko saioa dukegu: monte zeritzan jokoa useak ziren triki-mailu guztiak ezagututa, irakurleak ez zezala joka, eta halaxe egin ezean, atzipeturik gerta ez zedin bederen. Egileak, lanaren hitzaurrean, ez idazletzat ematen zuen bere burua, «carezco de musa», baina, handiustekeria doi bat erakutsirik, arrakerorik hautenek erabilitako iruzurrik zailenen jabe ere bazela aitorzen zigan, betiere bizitza oneko pertsonen zerbitzurako. Jukutria hauen antzemateko, Europako zein Ameriketako izen goreneko joka-leku eta besta-jiretan izana zen, askotan azpikokoa sartzen ari zitzaizkiola jakinda arrakeroei egiten uzten, baita babesik bako beste pertsonak bere sos guztiak galtzen ari zirela ikusten zuenean haien alde ezer egin gabe. Asko dira bere liburuan azaldu zitakigun marroak, harrigarrienen artean poxpolo kutxatilen barruan jarritako mirail txikiarena edota erloju-sistemaren bitartez karten markaketarena. Jokoa berean ikasitako hauen eraginkortasuna aldarrikatu zuen, bere bizitza osoan eramaniko jokaeraren zurigarri apika, beti ere gaiari buruz tajutu gaitzontzeko beste ha-maika liburuaren parean, non, zioenez, ezer probetxugarriarik ez zegokeen.

Anduezak aipatu bibliografía honen barruan, Jose Yanguas Mirandak ondutako kaier apain bat sarrara-



itsu bazen ere.

Patziku Perurena



Zeremoniaren artesiak

MUNDUA ANTZEZ-leku haundi besterik ez da gizakiontzako. Zeru eta lur, hiri eta baso, etxe eta kanpo, dena dugu antzerki eta zeremoni sare. Eta zeremonien kate nahasi honetan, haundienetik tikienera, agerrietik gordeenera, gradu kontua besterik ez doa. Politiko, bankeroa, abokatua, medikua, antzezlerik haundienak dituzu, horretarako apropos eta doktore prestatuak; baina kalegarbitzailea ere, antzele dela ohartzen zara, diosala egiten dizunean; eta auzoko laboraria berdin, eguraldi kontuari ekiten dion aldiro.

Zeremonia guztiak izaten ditu, halare, hutsarte ttiki batzuk, eta gizakia zinez nolako den aztertzeko bizioa duenari, zeremonia bera baino, hutsarte ttiki horiek askoz baliosoago gertatzen zaizkio. Bere zeremonian itsu itsuan ari dela baino hobeki ezagutzen baita gizakiaren nortasuna, zeremoniara sartzeko nola prestatzen den edota zeremoniatik ateratzean nola galtzen den ongi erreparatu gero. Hutsaldi ttiki horietan, oharkabeko hutsegite horietan, ihes egiten baitio bere zinezko nortasun apurrak.

Niri holakotan erazten zaizkit lagunak, eta ttak, momentutxo batez larrugorritan jartzen, eta, nahiz beren jantzi jator eta sentzilloekin, zeremoniarik ez dutela batere gogoko disimulatu nahi izaten duten, inork baino itsuago bizitzen dute zeremonia, eta beren onetatik aterata sumatzen ditut, gaitxoak, zeremoniarik egelenean ere beren burua nola jatorragotu ezin asmatuz. Hau inon baino hobeki, jendaurreko zeremoniatan ikusten da. Gestoran aldeko aparti herritarrik ezkerrenekoan bezain ongi herriko jauntxoek bazkaririk eskuinekoan.

Halakoetan, nik zistua jotzen dut, baina, partituran baino gehiago jendearen portaera erreparatu, garai batekoak be-

zala, solfarik gabe, belarriz eta begiz aritzen bainauzu. Eta hala, jende jator askoren izakeraz egina dizut nerè iruditxo, eta gero jende jator horrekin, han edo hemen hasten naiz hizketan, eta sekulako esplikazioak ematen dizkit bakoitzak bere zinezko ohorea disimulatu nahian. Ez direla alegia, batere zeremonia zale. Eta nik barren-dik: «Tranki, tio: inork eman edo kendu ezin duen huraxa duk eta ohorerik ederrena». Nere bihotza mutu izaki, ordea, eta ziztua hartzen dut atzera, beren guztizko ohore bila zeremoniatan segi dezaten.

Honetan, bat behar eta, Leitzua, hagitz herri zeremoni zalea duzu. Ikusi egin behar da herri honetan urtearen buruan zenbat zeremoni eder egiten den, eta jendeak nola erantzuten duen edozein zeremoni egitekoan. Bizia ere emanen luke, noski, askok, leitzarismoaren alde edozein zeremoni itxuroso egiteagatik. Eta hala, Leitzuandi beti duzu notizi. Eta nik, horrekin aski, leitzarren gizaeraz nere iruditxo egiteko.

Ez, inork ez gaitu libratzen eguneroko zeremonia ttikietatik, inork ere ez aldiro aldiko zeremonia haundietatik. Kontua da, nork bere zeremonia ikusteko eta juzkatzeko batere nortasunik eta noblezarik batoe duen? Bakanak baitira oso, zeremoni arteko hutsarte fin ttiki horiek aintzat hartu, eta gogoan iraultzika paratzen dituztenak. Halakoak bai, hereje finak!

Baina, hereje zinezkoak ez dizu ahotsik egungo gizartean. Horregatik ari zaizu euskal zeremoniosoa beti sorgin eta inkisizio asmaketan. Izanez ere, zinezko sorgina, hereje fina, ez baituzu inorako, ezta ezkerre-rako ere. Sasi azpitik edo hodei gainetik dabilkizu beti, eta zeremonia guztiak dizkizu sobran, eta zeriobait eskas beti: harri kixkil bat, expal ttar bat, bellar izpiño bat, lizta muttur bat... Badakizu: lurtean galdutako izar xikin horietarik.

Ziria

• Motxorrosolo •

Donesaturditik Senperera

ELKARRETARATZEA EGIN ZEN. DONESATURDIREN MAGALEAN LAGUN KUADRILA izan zitekeen baina helburuak aruntzago dijoazte. Normalean gisa hortakoek bestelako antolakuntza eskatzen dute. Helburuak, lan egiteko era, grina pixka bat. Senperen ere izan ziren. Laugarrenak harrobia izaten jarraitzen du. Baterako eta besterako. Cervera bertan arrantza egin duen azkena. Ahulkulari finak dira nunbait.

Mikel Landa


Arkitektoa

«Egurraren ezagutza eza kasik erabatekoa da»

Mikel Landa arkitektoa egurra eta haren etorkizuna arkitekturan izan ditu mintzagia Elizondon egunotan egiten ari diren Baztango Nekazal Arkitekturaren I Jardunaldietan.

Egurrarekin proiektuak egiten ohitua, Landaren iritziz jendeak deus gutxi daki egurrak eraikuntzan dituen aukerez. Arkitektoaren ustez, zurez egindako lanak osasungarriagoak dira.

● MIKEL SAIZ



soslaia

Mikel Landa arkitektoa Elorrión jaio zen, baina sei urterekin Iruñera etorri zen bizitzera. Egundak Gasteizen du etxebizitza, lana eta familia han lekutu baititu. Dena den, astero Nafarroako hiriburura hurbiltzen da Nafarroako Unibertsitateko Arkitektura Eskolan Eraikuntza klaseak ematera.

Aipatu unibertsitatean ikasi zuen arkitektura. Egurra beti izan du gustuko. Euskal Autonomia Erkidegoko Egurraren Zentru Teknikoko beka bat lortu zuen, eta geroztik, egurrarekin egiten dituen proiektu gehienak: etxeak, frontoiak edota etxe zaharren zaharberriak. Duela urte eskas bukatu zuen egurraren egitura elementuen zaharberriak ardatz zuen doktorego tesia Opeuseko unibertsitatean.

Egurrak eta egungo teknologiak aukera asko eskaintzen dituzten arren, gehienek ez omen dute arkitektura berriztatzeilerik onartzen. Landak dioenez, jendeak betiko etxetxoak egiten ditu. «Arkitektura lanek badute artelan zati handi bat. Baina egun, bizi garen garaitik bereizi eta beste garai batekoak sartu ditugu, eta hori, hein batean, penagarria da. Interesgarriagoa iruditzen zait teknologiak eskaintzen duena baliatuz erakitzea, kontuan izanda ingurugiro baldintzak, orientazioa eta eguzki aldea».

Bihar bukatuko diren jardunaldien barruan eskaintako hitzaldiak bildu zuen jende andanaz harriturik dago Landa. Unibertsitate klasea ematera joan baino mahai baten inguruan hitz egin zuen, lasai eta ausarki, dakiena ongi azalduz.

■ **Egurraren erabilera eraikuntzetan izan da zure hitzaldia-
ren ardatza. Nola uztartzen dira egun egurra eta eraikina?**

Batetik, egurra atzeritik inportatutako eraikuntza sistemetara egokitzen ari da hemen zegoen tradizioa galdu egin zelako. Iparraldeko herrietan erabilitako atal arineko sistemetara egokitu da egurra: Eskandinavia, Alemania, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Kanada, klima hotza duten herrialdeak eta ekonomia garatua dutenak, hain zuzen ere. Era berean, gero eta gehiago zaharberritzen da eta egurrez ohiko eraikuntzak egiten dira. Hemen, oso motel bada ere, egurrezko ohiko eraikinak egiten ari dira eta berreskuratzen ari dira XX. mendeko lehenengo erdira arte egurrez eraikiak zeudenak. Bestalde, teknologia berriek, egurrezko xaflez egindako eraikuntzak duela urte gutxi ezinezkoak ziren eraikuntzak (kirol pabiloiak, igerilekuak edo frontoiak) egiteko aukera eskaintzen dute.

■ **Zein funtzio du egurrak etxean?**

Atal arineko sistemetan egiturazkoa da, eta tradizioaletan, egiturazkoa ez ezik funtzio estetiko ere badu. Hemen ditugun baserri eta jauregietan egurra batez ere erabili da egiturazko elementu bezala. Eraikitzen zen egurrarekin baldintza jakin batzuk jasaten zituelako eta ezugarri batzuk zituelako. Estetikoki ere bazuen balioa.

■ **Baztango etxeetan, eta, oro har, Euskal Herrian bada eraikitze-
ko erabilteko ohiturik?**

Eraikitze gutxi erabiltzen da egurra gutxi. Penintsulan gutxi, eta Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan zertxobait gehiago. Badago egurrarekiko begirunea, jende-ari egurra gustatu egiten zaio. Egurrarekin eraiki ahal duenak egiten du baina, hala ere, gutxi. Egurrarekin araudi arazoa. Duela gutxi arte ez zegoen araudirik, hala nola: egur egituraren kalkulurik, sailkapenik eta egur saiakuntzarik. Porlanan guztia estandarizatua dago. Porlanarekin eta altzairuarekin eraiki eta kalkulatu ahal izateko ezagutza guztiak ditugu, egurrarekin al-diz, duela gutxi arte ez zegoen aukerarik. Funtzionatu behar izan dugu egur industria indartsua duten herrietako araudiekin: Frantzi eta Kanada, besteak beste. Industriak berak sortu du jakintza horien beharra. Egurrarekin eraikitze araudia ekainean edo uztailan aterako da Espainian. Orduan, eraikuntzan aritzen diren

«Jende-ari egurra gustatzen zaio baina ez da fio. Materiala ezagutzen ez duen teknikoak ez du egurra erabiliko lanean aritzeko, eta hori gertatzen da hemen. Gutxinaka aldatzen bada ere, hasieran gaude oraindik»

hasieran gaude oraindik.

■ **Zergatik ezagutza falta hori?**

Galdu egin dira lehenago zeuden ezagutza asko. Lehenago zegoen ezagutza esperientzian oinarritutakoa zen. Altxairua eta porlana iristean, egurra alderatu egiten dute. Orain, egurrak galdutako bidea berreskuratzean dago gakoa. Dena den, atzean bada arrazoi kultural bat ere. Hartz edo porlanaz egindako etxea jende-ari iraunkorrago iruditzen zaio eta ez da horrela.

■ **Ezagutza falta eta arrazoi kulturalaz gain, ez da garestiago egurrarekin eraikitzea?**

Egun egurrarekin egindako etxe baten kostua, eta porlaneko egi-

guztiak badute zerekin aritzeko tresna. Dena den, kanpoko araudi bat izaten jarraitzen dugu eta Europakoaren kalte bat da. Datuak baditugun arren, materialarekiko mesfidantza eta ezagutzagabetasuna kasik erabatekoa da. Jende-ari egurra gustatzen zaio baina ez da fio. Materiala ezagutzen ez duen teknikoak ez du hori lanetan erabiliko eta hori gertatzen zaigu hemen. Gutxinaka aldatzen bada ere,

tura eta adreiluzko itxiturekin egindakoarena antzekoa da. Bi ereikinetan %40 da ezberdina. Zifra horren portzentai bat litzateke eta ez dago hainbesteko alderik. Egia da egurrarekin eraikitzea beste herrialde batzuetan merkeagoa dela, adibidez Estatu Batuetan. Han materiala merkeagoa da eta dena estandarizatua dago. Hemen basoak, zerratokiak eta arotzak ditugu baina deus gutxi dago estandarizatua eta artisautza lana da. Aldiz, han lanaren osagarri guztiak oso industrializatuak eta espezializatuak daude.

■ **Beraz, egurra bizi kalitate hobetoaren sinonimo dela esan daiteke?**

Ez. Esan liteke bi eraikinen arteko azken prezioa antzekoa izan dela. Ezberdintasuna eraikuntza-aren kalitatean dago, hori zerbait objektiboa da. Etxeko barnekaldea egurrez duenak ez du hezetasunik izanen, besteak bai; berogailuan besteren erdia gastatuko du eta denbora gutxiagoan berotuko du etxea. Egurrarekin egindako eraikinek duten isolatze termikoa eta erosotasuna adreiluekin eta porlanarekin eraikitakoa baino askoz ere handiagoa da. Egurrak giroan soberan dagoen hezetasuna zurgatzen du edo, giroari falta bazaio, askatu. Oreakatzaile modukoa da, hau da, eraikin osasuntsuak dira.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Bakea munduan

Karl, gaur egun Jaungoikoa borobila da, izugarri borobila. Dena den, profeta berriek betiko ezagarrria dute: hitzontzi hutsak dira, noiznahi denetarik hitzegiteko gaitasuna duten horiek dira guruak. Iritzi sortzaile pribilegiatuak, mikrofono-grabagailu ondoan dutela aski dute: «Bihar makarroiak jango ditut» esatarekin esaldiaren oihartzuna mundu osoan aditzeko, horren inguruan hausnarketa taldeak eta tertulia amaigabeak egingo dira. Eta denok, salbuespenik gabe, bihar zer jango duen jakingo dugu. Arrazionalitatearen garai hauetan ostikoka ogia irabazten duten hauek zeresan handia ematen dute. La Pollak esana du: Gola zelaietan, bakea munduan; eta Ebaristok zeozar esaten duenean...

Karl, erlijio hau ere opioazeoa da. Langile, langabe eta etorkizun beltzeko ikasleei normala iruditzen zaie hiru mila pela ordaintzea (ez dakit eurotan zenbat den) urtean ehun miloi patrikaratzen duen haiek bezalako proletario solidario bat txalotzeko. Egia esan prezio horren barruan euren frustrazioak beste hainbeste kobratzen duen beste txotxongilo baten gainean jaurtitzeko aukera dago. Arrazoiak? Beste kolore batez jantzita dagoelako, finean janzkera arazoa. Eta horietako batek beltza aukeratzen badu (beti egoten da bateonbat) dena da zilegi haren kontra. Mundu honetan dagoen jokalaririk ospetsuena ez da brasildar burusoil hura baizik eta hijoputa izeneko bat, zelai guztietan bere izena aipatzen dute eta. Ez da larria, bi ordu pasa ondoren herritar ereduagarria bere onera itzuliko da. Zein farregarriak ziren erromatarren zirko zaharrak!

Entzun dudanez, nik honetaz ez baitut gehiegi ulertzen, dagoeneko hiru ditugu hor goian eta sollik gaixorik omen dabilen Osasuna falta dugu. Hau lortzen denean paradisuua Euskal Herriratu omen da eta akabo gure arazo guztiak.

(Karl, laguna, opioa beharrezkoa da. Inbidia diet, gu ez gara futbolzaleak, gu ez gara herria. Non bilatu behar dugu gure opioa? Txinan?)

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Pablo Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Gayarre Antzokian. Weber, Stravinsky eta Haydn lanak joko dituzte.
- **Iruñea:** Varsoviako Ganbara Orkestra ariko da Gayarren heldu den asteazkenean 19:45etan.
- **Iruñea:** Oskorrik kontzertua eskainiko du gaur, 20:30etan, Jose Vila ikastetxean. Sarrerak 800 pezeta balio du.
- **Igoa:** Esan-erran irratia aldeko gaupasa antolatu du Ametza Euskara taldeak bihar. Iratxo taldea ariko da 12:00etatik aurrera.

ANTZERKIA

- **Bera:** Lamixine Bat antzerki taldeak Jabier Muguruzaren testuak interpretatuko ditu gaur Muguruza berarekin batera. Ekitaldia 20:00etan hasiko da Kultur Etxean. Bihar, bestalde, Hika antzerki taldeak *Hau komeria* antzezlan musikala eskainiko du toki eta ordu berean.

BERTSOAK

- **Iruñea:** Datorren asteazkenean Estitxu Arozena eta Sebastian Lizaso bertsotan ariko dira Hizkuntz Eskolan 19:00etan.
- **Ituren:** Bertso-afaria egingen da bihar, 21:30etan, ostatuan. Bertsotan ariko dira Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso.
- **Leliza:** Juantxenea baserri errearen aldeko bertso jaialdia egingen da etzi. Bertsotan ariko dira J. Lizaso, J. Agirre, J. Azpillaga eta Y. Lazkano frontoian 17:00etan.

BESTELAKOAK

- **Betelu:** Txiste afaria egingen da bihar, 21:00etan, Zigari Elkartearen. Ondoren gaupasa izanen da Mundiñano anaiekin.
- **Iruñea:** Elkar entzuteko taletarra antolatu du Sumendi elkarteak bihar eta etzi. Ikastaroa Xabier Odriozolak emanen du Urdazubi Monastegia kaleko 17, behean. Informazioa eta izen ematea: 16-20-47.
- **Altsasu:** 'Nafarroa: eskubide historikoak' hitzaldia eskainiko du Juan Cruz Alli CDNko presidentek gaur, 20:00etan, Gure Etxean.
- **Zangoza:** Albreteko Endrike III. Ikerkuntza Lehiaketaren oinarriak kalean dira. 50.000 pezetako hiru sari emanen dira. Lanak 1998ko abenduaren 31a baino lehenago aurkeztu behar dira, eta Zangoza edo bertako jendea izan behar dute mintzagai. Informazio gehiago nahi duenak Zangozako Udalera joan behar du.

dia eskainiko du Juan Cruz Alli CDNko presidentek gaur, 20:00etan, Gure Etxean.

► **Iruñea:** 'Como y para que hacer cooperación al desarrollo' mahaingurua egingen da gaur, 20:00etan, Kultur Etxean.

► **Iruñea:** 'Como y para que hacer cooperación al desarrollo' mahaingurua egingen da gaur, 20:00etan, Kultur Etxean.

► **Iruñea:** 'Como y para que hacer cooperación al desarrollo' mahaingurua egingen da gaur, 20:00etan, Kultur Etxean.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Zertarako
lau gurpil
trakziodunak,
birekin aski
bada?



XUATAKA
4x4 berria

Kotxe guztiak
ez baitira
eskoziarrak